# TREBETASUNAK ETA ABILEZIAK heziketa inklusiboan



Irakasgaia: OCW. Jarduera Fisiko Inklusiboa.
Gomendio, M.; Fuentes, M. eta Zulaika, Lm.

# Gaiaren ezaugarriak

- Trebeziak: haurrak berez dituen gaitasunak
- Iaiotasunak: bi trebezia baino gehiago batera emango dira
- Gaitasun fisikoak: aurrekoen intentsitate maila

- Gaiarekin lotura duten hitz jarioa: Gizakia-pertsona; prozesua; eboluzioa-inboluzioa; motortasuna-mugimendua; ingurunea; erreflexua; ikasitako jokabidea; egokitzapena adimen emozionala

## GIZA MUGIMENDUA

Bizitza dagoen lekuan mugimendua dago. Mugimenduak garapena dauka. Haurtzaroan molde manipulaitbo eta lokomotore errazak bereganatzen dira eta ondoren, hauei oinarrizko trebetasunak gehituko zaizkie. Beraz, umeek zeregin errazak konbinatzen dituzte, gero eta molde espezifiko eta zailagoak lortzeko.

Hasieran, trebetasun orokorrak bezala ikusten dituzten oinarrizko molde motoreak, denborarekin zenbait aldaketak eta konbinazioak eginez kirol trebetasun bihurtuko dira

## GARAPEN MOTOREA

Giza garapenaren prozesuaren parte bat da. "Denboraren bitartez, jarrera motorean sortzen diren aldaketak, giza organismoa eta ingurunearen artean, interakzioa isladatzen du.

Garapen motoreak umearen osotasunezko garapenean (integralean) eragin handia dauka, batez ere bizitzaren hasierako urteetan**. Schilling**-ek dioen bezala, **mugimendua da gizakiak ingurunearekin komunikatzeko duen lehenengo eta oinarrizkoena den modua.**

# Jarduera motorrak

- EGINKIZUN MOTORRAK /oinarrizko mugimenduak

  - ANTOLAKETA BAXUA (Baja Organización)

    "gorputza erabiltzea inplikatzen duten mugimenduak-lekualdaketak"
    **Godfrey eta Kephart**

  - ANTOLAKETA ALTUA (Alta Organización)
  - objekturen bat erabiltzea inplikatzen duten mugimenduak (objektuak bota, garraiatu, e.a.)

# ANTOLAKETA BAXUA

- BEREIZKETAK:

  - KINESTESIKOA: Mugimendua
  - BEGIKOA: ikusmena (irudia-hondoa)
  - ENTZUTEZKOA: entzumena (erritmoa)
  - UKIMENEZKOA: ukimena/ kontaktua

# BEREIZKETA KINESTESIKOA

- ZERK OSATZEN DU
  - Gorputz eskema eta Gorputz irudia
  - Lateralitatea
  - Tonoa: (eutonia)
  - Jarrera/postura
  - Erlaxazioa: (paratonia)
  - Arnasketa
  - Oreka

# ANTOLAKETA ALTUA

- EGINKIZUN MOTORE KUALITATIBOAK
  Koordinazioa

- EGINKIZUN MOTORE KUANTITATIBOAK
  Gaitasun Fisikoak

# EGINKIZUN MOTORE KUALITATIBOAK ( Koordinazioa)

- GIHAR TALDE KOPURUA
  - orokorra
  - estua/ fina
- MUGIMENDUAREN EGITURA
  - sinplea
  - konplexua
- ABIADURA
- ZEHAZTASUNA
- ABILEZIA
  - Eskua eta begiaren artekoa
  - Hanka eta begiaren artekoa
  - orokorra

# EGINKIZUN MOTORE KUANTITATIBOAK

Gaitasun Fisikoak

- ERRESISTENTZIA
- ABIADURA-INDARRA
- MALGUTASUNA
- ZALUTASUNA (agilitatea)**???**

# TREBETASUNAK GARATZEKO PROPOSAMENAK

- **1960 Heziketa Orokorra:** Heziketa psikomotorra.
- **LE BOULCH, PSIKOZINETIKA:** Psiko: adimena eta afektibitatea
- Zinetika: mugimendua
- **Mugimenduaren bidezko heziketa**: Pedagogia berria. Vigostky

- **Helburua**: pertsona osotasunean hartuz, heziketa eskeintzea. Descartesen dualismoa gaindituz (gorputza eta arima).
- Psikozinetikan planteamendu praktikoa. Gimnastika naturaletik dator: pertsona naturara eramatea eta berarekin harremanetan jartzea, pertsona bere lanbidera egokituz.

- **1992 (Le Boulch) Kirol hezitzailea**: kirola pertsona hezteko-formatzeko. Kirolak haurraren formakuntzan lagundu behar du.

Trebetasunak lantzeko jarduereetan, kirola eta jokuak soilik lantzean haurrengan hutsunea sortzen da. Beraz, motrizitatean, gaitasun espezifiko bat asko lantzen bada, gainontzeko gaitasunak inhibituak geratzen dira.*

Jolasek eta Kirolek BAKARRIK, ez dute garatzen haurraren motrizitatea bere osotasunean. Jolasa ez da motrizitatearen soluzio bakarra.

*Adb.: kirolaren espezifikotasunak gihar zehatz batzuk asko lantzen ditu; beste giharrekiko deskonpentsatzioa eraginaz.

# TREBETASUN ETA GARAPENAREN ASPEKTU GARRANTZITSUAK

- **Piaget**-Adimenaren teoria: umeak gorputzaren bidez ikasten du: etapa ezberdinak: 1. (aro sensomotorea): jaiotzatik 2 urte arte.
- **Wallon**-Ikuspuntu psikobiologikoa: garapen psikologikoa eta motorra batera doaz. “Gizakia-mundua” harremana: afektibitatea eta enpatia.
- **Freud**: gure “NIA” nola garatzen doan landu zuen. <2 urte: Nia = gorputza.
- **Vygotsky**: Inguruneak estimulua ematen dio haurrari eta beronek erantzuna ematen du. Harreman honek ERANTZUNAK eragingo ditu. Iraganeko ustea: estimulu berak erantzun ezberdinak ekarri ditu.
- **Luriak**: hautematearen prozesua eta zeregina. Sentsazioa / hautematea.

# PSIKOZINETIKA: Le Boulch

- 1. oinarria, filosofia da, argitu beharko genuke gizakiengan ez dagoela determinismorik.

- Pedagogia Eraginkorra: formazioa eta ikaskuntza desberdinduko ditugu. Formazioa kontzeptu zabalagoa da, “nik” markatzen dut noraino ikasi behar dudan.
- Ikaste prozesuan ordea, irakaskuntza estuagoa da, itxiagoa. Irakasleak esaten du nola egin.

  Ikaslea ezin da formatu bere esperientziak eta bere “modua” ez bada jarraitzen. Haustura ematen da: irakasleak eredua ematen du, baina ikasleak bere era du.

  Formazioan prozesua ematen da, eta ikasleen nahia, desira, esperientziak e.a… kontutan hartzen ahalegintzen da.

  Formakuntzan ez da eredurik erabiltzen; ikaskuntzan ordea, bai.

# Psikozinetika: Le Boulch

- Kirolak, jolasak eta H.F.-ak barne harremanak lortzen laguntzen du. Oinarri honi dagokionean esan beharra dago irakasleak norberarekiko helburu jakin bat/batzuk lortzeko lana egiten duela. Nahiz eta bakarkako helburua lanarena izan, bilatzen dugu era berean: alde afektiboa, autoestima, autoefikazia.

  Talde lanak burutzea ona da. Baina era berean beharrezkoa da bakarkako lana ere burutzea, egoeraren ñabardura ezberdinak ezagutzeko.

  Bakarkako kirolek laguntzen al digu harremanak sendotzen? Askotan, konturatu gabe, egoerak bultzatzen gaitu, bakarrik gaudenean, harremanak hastera.

BOPV. EHAA. 2007ko azaroak 13, asteartea
218. alearen **Gehigarria** – **Suplemento** al n.º 218

***Ikaskuntza-eremu bakoitzak bere ekarpena egiten du, eta, «gorputz-hezkuntzaren» kasuan, zeregin hori gorputzaren portaera motorraren eta jolasen bitartez garatzen da.***

***Horrela:***
***ikasleen adimen motorra,***
***komunikatzeko eta harremanak egiteko ahalmena,***
***emozioak adierazteko eta kontrolatzeko ahalmena,***
***eta norberaren ekintzak behar bezala bideratzeko gaitasunak garatzen dira.***